

TXARTELAK SUSTATZEKO ZOZKETAREN OINARRIAK

1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) –Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500– duenak, 2.000 euroko 5 sari zozkatuko ditu, sustapen baten barruan.

2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Pertsona fisikoak diren 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere 2018ko uztailan eta abuztuan (hil bakoitzean) LABORAL Kutxaren kreditu- edo zordunketa-txartel partikularrekin gutxienez 300 euroko ordainketak egiten badituzte. Parte-hartzaileek, hil horietarako ezarritako zenbatekoak gastatzeaz gain, beren txartela LK Pay aplikazioarekin lotzen badute eta horren bidez gutxienez ordainketa bat egiten badute, bikoiztu egingo dituzte aukerak zozketan.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak eta/edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- zozketa

Zozketa 2018ko irailaren 15ean egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, zozketan ordezkoko 5 izen aterako dira, badaezpada, irabazleek baldintzak betetzen ez badituzte ere.

10 egun balioduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkokoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

2.000 €-ko 5 sariren zozketa. Entitateak egoki deritzen moduan eta lekuan emango ditu sariak.

6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko legedian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.



7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Ez baditu baldintzok betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.

